



ALKATEARI

Talde Popularreko zinegotzi Vanesa Velez De Pablosek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean Udalak eskumuturreko jagoleak erosi eta banatzearen gainean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Toxikologiaren eta Auzitegi Zientzien Institutu Nazionalaren (TAZIN) azken memorien arabera, larrialdi-zerbitzuetan artatutako eta Institutuak aztertutako sexu-erasoen 3 biktimatik 1ek positibo eman zuen substantzia psikoaktiboren batean.

Biktimaren profilari dagokionez, ikusten da Espainian mendekotasun kimikoaren biktima izan diren pertsonen % 90 baino gehiago emakumeak direla, eta adin-tarte kalteberena 18 eta 30 urte bitartekoa.

Oraindik ere alkohola da substantzia prebalenteena (sumisio oportunistak), baina badago ehuneko bat, aurrez pentsatutako sumisio-kasuena, oso kezagarria. Hor izaten dira droga usaingabeak eta koloregabeak (substantzia ikusezinak), oso denbora gutxian amnesia eta sedazioa eragiteko diseinatuak, eta horiek botatzen dituzte biktimaren edarian hura konturatu gabe.

Beraz, auzitegiko datuek berretsi egiten dute gertatzen den gauza dela substantzia psikoaktiboak erabiltzea biktimen borondatea deuseztatu eta delituak egiteko (sexu-erasoak batez ere).

Horrela, bada, prebentzio aktiboa ez da aukeran den gauza bat, premia baizik. Hala, eskumuturreko jagoleena defentsa pertsonaleko aukera bat da, edalontzientzako tapekin eta giltzatak alaromadunekin osatuta, herritarren babes aktiboa ekarriko lukeena.

Hori dela eta, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Udalaren osoko bilkurak gobernu-taldeari eskatzen dio eskumuturreko jagoleak erosi eta Aste Nagusian eta Donostian izaten diren beste ospakizun jendetsu batzuetan banatzeko.
2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu-taldeari eskatzen dio aipatutako ospakizun jendetsu horietan (eta egoki iritzitako beste batzuetan) jendearen esku jartzen diren edalontziekin batera, haientzako tapak ere banatzeko.
3. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu-taldeari eskatzen dio giltzatako alarmadunak ere emateko eskatzen dituztenei Puntu Moreetan.
4. Udalaren Osoko Bilkurak gobernu-taldeari eskatzen dio, aurreko puntuetan adierazitako gailuak erosteko izan behar den aurrekonturik ez badu, horretarako egin behar den aurrekontu-aldaketa egiteko.

Donostian, 2026ko apirilaren 23an.

Vanesa Velez de Pablos,
Udaleko Talde Popularreko zinegotzia